

**EUSKADIKO KIROL PORTUA, SA SOZIJETATEAK KUDEATZEN DITUEN  
GETARIA, HONDARRIBI ETA ORIOKO KIROL PORTUETAKO PORTU  
INSTALAZIOETAKO SEGURTASUN ETA ZAINZAKO ZERBITZUAK  
KONTRATATZEKO KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN  
ORRIA.**

## I. KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK

### 1 KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da Getaria, Hondarribi eta Orioko kirol-portuetako portu-instalazioetako segurtasun eta zaintzako zerbitzuak kontratatzea.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren (SPKLTB aurrerantzean) 116. artikulua araberan, kontratu honen baldintza teknikoaren orrian zehazten dira kontratatutako zerbitzugintza arautzen duten eta dagozkion kalitateak definitzen dituzten baldintza teknikoak.

### 2 KONTRATU DOKUMENTUAK:

Dokumentu hauek dute kontratu-izaera:

- a) Klausula administratibo partikularren orriak.
- b) Baldintza tekniko partikularren orriak.
- c) Kontratua formalizatzeko dokumentuak.
- d) Hala badagokio, enpresa kontratugileak onartutako lan-programak.

### 3 KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA.

3.1 Kontratuak izaera pribatua du eta jarraian adieraziko diren arauak eta dokumentuak arautzen dute.

3.2 Kontratu honako hauek arautzen dute, lehenik eta behin:

- a) Klausula administratibo partikularren orri honetan barne hartutako klausulek.
- b) Baldintza tekniko partikularren orrian jasotako klausulek.
- c) 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 14koak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina (SPKLTB) onartzen duenak.
- d) 817/2009 Errege Dekretuak, maiatzaren 8koak, urriaren 30eko 30/2007 Legea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, zati batez garatzen duenak.
- e) Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (HAKLEO) onartzen duenak, betiere SPKLTBn aurreikusitakoaren aurka ez badago.
- f) 1972ko martxoaren 8ko Aginduak, azterketa eta zerbitzu teknikoak kontratatutako klausula administratibo orokorren Orria onartzen duenak, betiere aurretik aipatutako Legean eta Erregelamenduan xedatutakoaren aurka ez badago.
- g) Kontratu-izaerako dokumentuak.

Eta bere arautzeak eragiten duen neurrian:

- h) Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, datu pertsonalak babesteari buruzkoak.
- i) 59/2003 Legeak, abenduaren 19koak, sinadura elektronikoki buruzkoak.
- j) 34/2002 Legeak, uztailearen 11koak, informazioaren gizartearen eta merkataritza elektronikoen zerbitzuei buruzkoak.
- k) Ogasun eta Herri Administrazioen sailburuaren 2004ko abuztuaren 16ko Aginduak, Herri Administrazioen kontratuen legerian aurreikusitako prozedura eta jarduketa jakin batzuen izapidetze telematikoki buruzkoak.
- l) Estatuan zein Euskal Autonomia Erkidegoan kontratazioa arautzen duen beste edozein xedapenek, aipatutako erkidegoaren eremuan aplikatuta badaiteke.

Modu osagarrian, 30/92 Legeak, azaroaren 26koak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, eta zuzenbide administratiboko gainerako arauak, eta, horrelakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

3.3 Alderdi hauetako edozeinetan kontratua, horri erantsitako dokumentuak edo hitzartutakoa gauzatzeko aplikatuta daitezkeen eta enpresa kontratugileak eman dituen instrukzioak, orriak edo arauak ez ezagutzeak ez du bere betebeharretatik salbuetsiko enpresaburua.

### 4. KONTRATUAREN AURREKONTUA.

Kontratu honen xede diren zerbitzuak eskaintzeko, enpresa kontratugileak 431.000 euroko (Laurehun eta hogeita hamaika mila euro), BEZ GABE, aurrekontua prestatu du.

Kontratu hau kontratatutako aurrekontu-kontsignazio nahikoa dago.

### 5. KONTRATUAREN PREZIOA.

Kontratuaren prezioa kontratuaren esleipenaren arabera izango da, eta ezingo du enpresa kontratugileak ezarritako aurrekontua gainditu.

Prezioaren barruan sartuta daude aplikatu beharreko edozein motatako zergak, tasak eta kanonak. Halaber, sartuta daude zerbitzua eskaintzearen ondoriozko beste edozein gastu, edo orri honetan jasotako betebeharrak bete izanaren ondorioz esleipendunak edukiko dituen gastuak.

### 6. PREZIOAK BERRIKUSTEA.

Kontratu enpresa kontratistaren arriskuz eta menturaz gauzatu da. Ez da prezioen berrikuspenik egingo.

## 7. KONTRATUA GAUZATZEKO EPEA ETA KONTRATUAREN IRAUPENA.

### 7.1 **Hasierako epea.**

Kontratu honen hasierako iraupena 2015/03/01etik 2017/02/28ra izango da.

### 7.2 **Kontratu luzatzeko prozedura.**

Kontratu urtero luzatu ahal izango da, aldeen elkarren adostasunez, zerbitzuak errepikatzeko helburuarekin, betiere luzapenak irauten duen bitartean zerbitzuaren ezaugarriak aldatzen ez badira eta kontratuaren gehienezko iraupena, luzapenak barne, kontuan hartuta egin bada kontratua esleitzeko lehia. Luzapenak gehienez ere 2 urte iraungo ditu. Horrenbestez, kontratuak gehienez ere 4 urte iraungo ditu, luzapenak barne hartuta, hau da, 2019/02/28ra arte.

Luzapena berariaz adostuko da eta ezingo da luzatu aldeen isilbidezko adostasunez.

Xede horretarako, alde esleipendunak luzapen-eskaera bidaliko dio enpresa kontratugileari, eta kontratua amaitu baino bi hilabete lehenago, gutxienez, egin beharko du.

EKPren Zuzendaritzak bere iritzia arabera erabakiko du kontratua luzatu ala ez. Enpresa kontratistak ez du kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik edukiko.

Luzapenik egonez gero, Estatistikako Institutu Nazionalak onartutako kontsumoko prezioen indize orokorraren (KPI) arabera areagotuko da prezioa. Horretarako, luzapena hasi aurreko azken hilabetearen argitaratutako KPI hartuko da kontuan.

## 8 TRAMITAZIOA ETA ESLEIPEN PROZEDURA ETA MODUA.

8.1 **Tramitazio arrunta** dagokio kontratazio-espeditari.

8.2 Kontratu hau prozedura irekiaren bitartez esleitu da, SPKLTBn ezarritakoa jarraituz.

8.3 Esleipena egiteko moduari dagokionez, eskaintzak balioesteko hainbat irizpide aplikatuko dira.

## II. KONTRATAZIO PROZEDURAN PARTE HARTZEA

## 9 PARTE HARTZEKO ARAU OROKORRAK.

### 9.1 **Baldintza orokorrak:**

9.1.1 Bakarka edo aldi baterako enpresa-elkarte gisa, enpresek parte hartzeko proposamen edo eskaera bakarri aurkez dezakete. Eta, enpresa batek bakarka parte hartzen badu, ezin izango du beste enpresa batzuekin batera enpresa-elkarte gisa parte hartu. Arau horiek urratuz gero, atzera botako dira berak aurkeztutako eskaintza edo parte hartzeko eskaera guztiak.

9.1.2 Kontratazio-prozeduran parte hartu ahal izango dute Espainiako zein atzerriko pertsona naturalek edo juridikoek, baldin eta jarduteko ahalmen osoa badute, kontratatzeke debekurik ez badute eta beren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala ziurtatzen badute.

9.1.3 Enpresa lizitatuak kontratua behar den bezala gauzatzeko nahikoa eta beharrezko elementu pertsonal eta materialez osatutako antolakuntza izan beharko dute, baita orri honen xede den zerbitzua gauzatzeko exijituko den enpresa-mailako gaitzea edo gaitze profesionala ere.

9.1.4 Pertsona juridikoak kontratuen esleipendun izango dira, baldin eta kasuan-kasuan estatutuen edo sorrera-arauen arabera, dituzten prestazioak dagokien helburu, xede edo jarduera-esparruekin bat badatoz, edo kontratua behar den bezala gauzatzeko elementu pertsonal eta material nahikoa dutela ziurtatzen badute.

### 9.2 **Bateraezintasunak:**

9.2.1 Ezin izango dute lizitazioan esku hartu kontratuen zehaztapen teknikoak edo prestaketa-dokumentuak lantzen parte hartu duten enpresek, baldin eta parte-hartze horrek lehia librerako murrizketak eragin baditzake edo gainerako enpresa lizitatuakikiko tratu pribilegiatua ekar badezake (*SPKLTBren 56.1.1. art.*).

### 9.3 **Ondorioak:**

Lizitatuak proposamena edo eskaera aurkezten badu, orri honetako klausulak eta gainerako kontratu-dokumentuak onartzen dituela ulertuko da, salbuespenik gabe, eta aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla eta obra kontratatzeke eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela ziurtatzen dela.

## 10 ESKATUTAKO DOKUMENTUAK AURKEZTEKO EPEA ETA MODUA.

### 10.1 **Dokumentazioa eta aurkezteko epea:**

Prozedura irekian parte hartzeko, enpresa lizitatuak hiru gutun-azal itxi aurkeztuko ditu (A, B eta C) EUSKADIKO KIROL PORTUA, SA sozietatearen bulego nagusietan (Adriano VI.a, 20-1.a, Vitoria-Gasteiz), **lizitazio-iragarkian adierazitako epearen barruan**. Gutun-azal horietan beranduago aipatuko den dokumentazioa sartuko dute eta guztietan jarriko dute xede den kontratazioa, lizitatzen den kontratua, enpresaren izena, proposamenaren sinatzailearen izena eta abizenak eta izaera, telefono-zenbakia eta fax-zenbakia eta helbide elektronikoa, eta hori guztia irakur daitekeen moduan aurkeztuko dute. Gutun-azal bakoitzaren barruan orri independente bat aurkeztuko da, eta bertan gutun-azalaren edukia zenbakituta adieraziko da.

10.2 Enpresak eskatutako dokumentazioaren jatorrizkoa edo kopia aurkeztu ahal izango du, administrazioak edo notarioak behar bezala konpultsatua edo legezkatua.

10.3 Esleipenaren ondoren hiru hilabeteko epea igarota, aurkeztutako dokumentazioa enpresek jasotzen ez badute, EKPk dokumentazio hori desegin dezake.

10.4 Autonomia-erkidegoko bi hizkuntza ofizialeko batean (euskaraz ala gaztelaniaz) aurkeztuko da dokumentazioa. Beste hizkuntza batean idatzita badago, dagokion itzulpen ofiziala ere aurkeztuko da.

EKPk, esleipena egin aurretik edo ondoren, nahiz kontratuaren indarraldian, gutun-azalean aurkeztutako dokumentuen egiazotasuna egiaztatu ahal izango du. Enpresak aurkeztutako datuetan edo zirkunstantzietan faltsutasunik aurkitzen bada, kontratua baliogabea izan daiteke, enpresa kontratistari egotzeko moduko arrazoien ondorioz kontratua ez betetzeagatik. Horrela bada, enpresa kontratugileari eragindako kalteak eta galerak ordainduko zaizkio.

## 11 «A GUTUN AZALA»: «KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA»:

### 11.1 Arau orokorrak.

#### 11.1.1 Lizitatzailerik eta enpresa sailkatuen erregistro ofizialak:

- Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden enpresek ez dituzte aurkeztu behar 11.2.3., 11.2.4. eta 11.2.6 klausuletan adierazitako dokumentuak, betiere indarrengo ziurtapenak aipatutako klausuletan jasotako datuak islatzen baditu eta gutun-azalean ondorengo dokumentuak sartzen badituzte:
  - Aipatutako Erregistroan inskribatuta daudela ziurtatzen duen indarrengo ziurtagiria.
  - Ziurtagirian adierazitakoak aldaketarik jasan ez duela adierazten duen enpresaren ardurapeko aitortpena (IV. Eranskineko eredu). Esleipendun suertatuz gero, berriro aurkeztuko da agiria, kontratua formalizatzeke dokumentuan.
- Estatuko Lizitatzailerik eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko inskripzio-ziurtagiriak SPKLTBren 83.1. artikuluan ezarritako ondorioak edukiko ditu.
- Enpresa atzeritarrek kontuan hartuko dute 10.4. artikuluan hizkuntzari dagokionez adierazitakoa, eta orri honen II. eranskinean aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokionez adierazitakoa.

### 11.2 Dokumentuen zerrenda:

- Dokumentuen zerrenda: Orri independente batean gutun-azalean sartutako dokumentazioaren zerrenda zenbakitua adieraziko da.
- NAN: Bere izenean zein ahaldun bezala eskaintza edo parte hartzeko eskaera aurkezten duen pertsonaren Nortasun Agiri Nazionala.
- Esakritura eta estatutuak: Kontratatzeko interesa duen enpresa pertsona juridikoa denean, Merkataritza Erregistroan inskribatuko eratze-eskiritura, aldaketen eskiritura edo indarrean dauden estatutuak aurkeztuko dira, betiere aplikatzeko den merkataritza-legeriaren arabera exijitu daitekeenean. Horrela ez denean, eratze-eskiritura edo -dokumentua, aldaketen eskiritura, estatutuak edo sorrera-egintza aurkeztu behar dute (bertan adieraziko dira kasuan-kasuan jardura arautzen duten arauak), eta behar den bezala izena emanda egon behar dute Erregistro publikoan, pertsona juridiko motaren arabera.
- Ahalordetzea: Eskaintza edo parte hartzeko eskaera sinatzen duen pertsonak ez duenean bere izenean jarduten edo pertsona juridiko baten izenean diharduenean, kasu horretarako ahalordetze nahikoa aurkeztuko da. Enpresa interesduna pertsona juridikoa denean, ahalordea Merkataritza Erregistroan inskribatuta egongo da. Dena den, egintza zehatz baterako ahalordea denean, ez da beharrezkoa Merkataritza Erregistroan inskribatuta egotea, Merkataritza Erregistroaren Araudiko 94.1.5. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Antolaketa: Enpresak kontratua behar den bezala gauzatzeko nahikoa eta beharrezko elementu pertsonal eta materialez osatutako antolakuntza duela justifikatu eta ziurtatu beharko du.
- Kontratatzeko debekuak: SPKLTBren 60. artikuluan adierazitako kontratatzeke debekurik ez izatearen ziurtapena (IV. Eranskineko eredu).
- Kaudimena justifikatzea  
Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa  
Azken hiru ekitaldietako negozio-bolumen orokorrari buruzko aitortpena.  
Kaudimen teknikoa  
Azken hiru urteetan egindako lan garrantzitsuenen zerrenda.
- Baliabide materialak atxikitzeke edo kontratua gauzatzeko baldintza bereziak betetzeko konpromisoa: Enpresak orri honen III. Eranskineko baliabide pertsonalak eta materialak atxikitzeke konpromisoa sinatuta aurkeztuko du.
- Talde bereko kide diren enpresen zerrenda. SPKLTBren 145.4 artikulua bigarren paragrafoan eta HAKLEOren 86.1. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, talde bereko kide diren enpresen zerrenda aurkeztuko da. Talde bereko enpresatzaile joko dira Merkataritza Kodeko 42.1. artikuluan adierazitako baldintzak betetzen dituztenak.-Enpresa-talde bateko kide ez bada, hori horrela dela ziurtatzen duen aitortpena aurkeztuko da.
- Izaera konfidentziala: Beharrezkoa dela uste bada, gutun-azalean eskaintzari buruz adierazitako informazioa eta datuak konfidentzialak direla adieraziko du enpresak, sekretu tekniko edo komertzialekin zerikusirik dutenean, eta konfidentzialtasuna justifikatzeko arrazoiak adieraziko ditu, halaber. Horretarako, VII. Eranskineko eredu erabiliko du.

Aldi baterako enpresa-elkarte. Enpresa batek baino gehiagok lizitazioan parte hartzeko, aldi baterako enpresa-elkarte bat eratzen badute, enpresa bakoitzak gaitasuna eta kaudimena badituela egiaztatu beharko du, arestian aipatutako klausuletan ezarritakoaren arabera, hau da, enpresa-elkarteko kide diren enpresa guztiek aurkeztuko dute A gutun-azaleko dokumentazioa.

Aldi baterako enpresa-elkarte batean parte hartu nahi duten enpresek proposamen-identifikatzaile bat aurkeztuko dute eta bertan adieraziko dira enpresen izenak eta ezaugarriak, bakoitzak duen partaidetza eta kontratuaren indarraldian guztien ordezkari izango den eta kontratutik ondorioztatzen diren eskubideak gauzatzeko eta betebeharrak betetzeko eskumen nahikoa edukiko duen pertsona fisiko ordezkaria edo ahalduna. Dena dela, ahalorde erkidetuak ere eman ahal izango dituzte zenbateko handi samarrek kobrantzak eta ordainketak egiteko, eta esleipendun suertatuz gero, formalki aldi baterako enpresa-elkarte bihurtzeko konpromisoa aurkeztuko da. Agiri hori enpresa-elkarte osatzen duten enpresa bakoitzaren ordezkariak sinatuko dute. Kontratua Aldi Baterako Enpresa Elkarteari esleitzen bazaio bakarrik formalizatuko da eskiritura publikoan.

## 12 «B GUTUN AZALA»: «ESKAITZA EKONOMIKOA».

### 12.1 Arau orokorrak.

Lizitatzailerak eskaintza ekonomiko bakarra aurkeztuko du, II. Eranskineko ereduaren arabera; eskaintako prezioan ez da Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokion zenbatekoa barne hartuko. Ez da aldaerarik onartzen.

### **13 «C GUTUN AZALA»: «BALIO JUDIZIO BAT EGITEA ESKATZEN DUTEN IRIZPIDEAK»**

- 13.1 Eskaini beharreko zerbitzuen azterketa zehatza. Lan-programa bat eta bertan adieraziko dira eskainiko diren zerbitzuak, zerbitzuen antolakuntza, egutegiak, ordutegiak, txandak, langileen prestakuntza, langileen kostuak. Guztia kontratazio hau arautzen duten baldintza teknikoaren orrien arabera.
- 13.2 Kontratua gauzatzeko agindutako giza bitartekoen eta bitarteko materialen zerrenda bat.
- 13.3 Lanen zerrenda bat eta kontratuaren xedearen antzeko lanetan enpresak duen esperientzia ziurtatzen duten txostenak. Enpresa kontratistak kostu gehigarriak gabe eskaintzen dituen eta kontratua gauzatzeko lagungarriak diren hobekuntzen zerrenda bat.

## **III. GUTUN AZALAK IREKITZEA ETA ESKAINTZAK KALIFIKATZEA ETA EBALUATZEA**

### **14 A GUTUN AZALA, «GAITASUNA ETA KAUDIMENA ZIURTATZEKO DOKUMENTAZIOA», IREKITZEA ETA KALIFIKATZEA**

Proposamenak aurkezteko epea amaitzean, kontratazio-mahaiak A gutun-azalean, «Gaitasuna eta kaudimena ziurtatzeko dokumentazioa», aurkeztutako dokumentuak aztertu eta kalifikatuko ditu garaz eta eraz, lizitazio-iragarkian adierazitako datan eta lekuan.

Aurkeztutako dokumentazioan akatsak edo ez-egiteak ikusiz gero, eragindako enpresei jakinaraziko zaie, gutun edo ofizio bidez, zein telegrama, telex edo telekopia bidez, eta epe bat emango zaie, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuak, urriaren 30eko 30/2007 Legearen, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa denaren, zati batean garatzen duenak, bere 27. artikuluan ezarritakoaren arabera, enpresek egiten dituzten zuzenketak kontratazio-mahaiaren aurrean aurkezteko. Adierazitakoari kalterik egin gabe, aipatutako gorabeherak jendaurrean jarriko dira aipatutako kide anitzeko organoaren iragarkien bitartez, eta sistema elektronikoak, kontratatzailearen profila edo prozedurarekiko egokiak diren bideak erabiliz jakinarazi ahal izango dira.

Aurreko klausulan adierazitako zuzenketaz gain, gaitasun-eta kaudimen-baldintzak betetzen direla ziurtatzeko, enpresari aurkeztutako ziurtagirien eta dokumentuen azalpenak eskatu ahal izango zaizkio edo ziurtagiri edo dokumentu gehiago aurkezteko, eta horretarako bost eguneko epea utziko zaio. Zentzu horretan, ezin izango dira ziurtagiriak edo dokumentuak aurkeztu hurrengo paragrafoan aipatzen den onarpen-aitorpena eman eta gero.

Dokumentazioa sailkatu eta, hala badagokio, antzemandako akatsak edo ez-egiteak zuzendu eta gero, kontratazio-mahaiak gaitasun-eta kaudimen-baldintzak betetzen dituzten enpresak zehaztuko ditu eta lizitazioan onartu diren enpresei, atzera bota direnei eta atzera botatzeko arrazoiei buruz berariazko iritzia emango du.

Lizitazioan onartu diren enpresen, atzera bota direnen eta atzera botatzeko arrazoien zerrenda enpresa parte-hartzaileen eskura jarriko da; edozein kasutan, aipatutako organoaren iragarki-oholean jendaurrean jarri ahal izango da zerrenda, edo sistema elektronikoak, kontratatzailearen profila edo prozedurarekiko egokiak diren bideak erabiliz jakinarazi ahal izango da. Edozein modutan, zerrenda jendaurrean irakurriko da eskaintza ekonomikoak jendaurrean zabaltzen direnean.

### **15 C GUTUN AZALA, «BALIO JUDIZIO BAT EGITEA ESKATZEN DUTEN IRIZPIDEAK», IREKITZEA ETA EBALUATZEA.**

Kontratazio-mahaiak, lizitazioan onartutako enpresak erabaki eta gero, eta B gutun-azala ireki aurretik, C gutun-azala, «Balio-judizio bat egitea eskatzen duten irizpideak», irekiko du jendaurrean, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuak, urriaren 30eko 30/2007 Legearen, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa denaren, zati batean garatzen duenak, bere 27. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta espedientean dokumentu bidez jasoko dira irekitako gutun-azalak eta bakoitzean aurkeztutako dokumentazioa.

Ondoren, kontratazio-mahaiak kontratazioaren eskatzaile diren zerbitzu teknikoak bidaliko die aipatutako dokumentazioa, zerbitzu teknikoak ezarritako irizpideen arabera azter dezaten eta egokituz jotzen dituzten txostenak eska ditzaten.

Eskatutako informazioa jaso eta gero, kontratazio-mahaiak eskaintzak ebaluatuko ditu, orri administratiboan 17. puntuan adierazitako balorazio-irizpideen arabera.

Ebaluazioaren emaitza enpresa lizitatzaileraren eskura jarriko da; edozein kasutan, aipatutako organoaren iragarki-oholean jendaurrean jarri ahal izango da zerrenda, edo sistema elektronikoak, kontratatzailearen profila edo prozedurarekiko egokiak diren bideak erabiliz jakinarazi ahal izango da. Edozein modutan, aipatutako emaitza jendaurrean irakurriko da eskaintza ekonomikoak jendaurrean zabaltzen direnean.

### **16 B GUTUN AZALA, «ESKAITZA EKONOMIKOA ETA FORMULEN BITARTEZ EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK», IREKITZEA ETA EBALUATZEA.**

Eskaintzak irekitzeko adierazitako datan eta egunean –dokumentazioa aurkezteko epea amaitzen denetik hilabete bateko epean, gehienez ere-, kontratazio-mahaiak parte hartzen duten enpresen kopurua eta izenak jakinaraziko ditu egintza publikoan eta HAKLEOren 83. artikuluan ezarritako baldintzetan, eta egintza berean jakinaraziko du A gutun-azaleko dokumentuen kalifikazioa eta onartu diren eta atzera bota diren enpresen izenak eta atzera botatzeko arrazoiak. Ondoren, C gutun-azala aurkeztu behar bada, ahoz jakinaraziko du C gutun-azala ireki ondorengo emaitza eta bertan barne hartutako dokumentazioaren ebaluazioaren emaitza. Jarraian,

B gutun-azala, «Eskaintza ekonomikoa eta formulen bitartez ebalua daitezkeen irizpideak», irekiko du eta gutun-azal horretan aurkeztutako eskaintzak irakurriko ditu.

## 17 BALORAZIO IRIZPIDEAK

Lizitatzailen proposamenak baloratzeko, honako irizpide hauek hartuko dituzte kontuan:

A) 30 puntu arte.

Eskaintza ekonomikoenak puntuazio maximoa jasoko du eta 0 punturekin baloratuko da lizitazio motara egokitzen den proposamena, eta gainerako proposamenak formula honen arabera puntuatuko dira:

$$\text{Puntuazioa} = 30 - \frac{\text{(aurkeztutako eskaintza - eskaintza ekonomikoena)}}{\text{Lizitazio mota}} * 50$$

Kontratazio-mahaiak ezohiko edo neurritz kanpoko eskaintzat joko ditu, horien prezioa lizitazio-aurrekontuaren % 8 gainditzen dutenak. Kasu horretan, kontratazio-mahaiak kontratazio-organoari jakinaraziko dio eta egokitzen jotzen dituen justifikatzeko txostenak helaraziko dizkio.

Eskaintza bat ezohikoa edo neurritz kanpoko delako adierazten duen aitortpena egiteko, aldez aurretik ustez barne hartzen diren lizitatzailen guztiei informazioa eskatuko zaie eta kasuan-kasuan zerbitzuaren aholkularitza teknikoa eta kontratazio-mahaiaren txostena ere eskatuko zaie.

Kontratazio-organoak, lizitatzailen egindako justifikazioa eta SPKLTBren 152.3. artikuluan aipatzen diren txostenak kontuan hartuta, eskaintza behar den bezala beteko ez dela uste badu, aurkeztutako proposamena baztertua erabakiko du.

B) 30 puntu arte. Laneko programa.

Eskaintza diren zerbitzu, zerbitzuen antolakuntza, egutegi, ordutegi, txanda, langileen prestakuntza, langileen kostu eta abarren azterketa zehatza.

C) 10 puntu arte.

Kontratuaren xedea betetzeko atxikiko diren giza bitartekoak eta bitarteko materialak.

D) 15 puntu arte.

Esperientzia eta aurkeztutako txostenak.

E) 15 puntu arte.

Erabiltzaile(ar)en onurarako izango diren hobekuntzak.

## 18 ESKAINTZAK EZ ONARTZEA.

Ez dira onartuko honako eskaintza hauek:

- Enpresa kontratugilearen ustez, eskaintza baloratzeko funtsezkoak diren alderdiak ondo ezagutzea eragozten duten kontraesanak, ez-egiteak, akatsak edo zirriborroak dituztenak.
- Aztertu eta onartu den dokumentazioarekin bat ez datozenak.
- Lizitazioko aurrekontua gainditzen dutenak.
- Eskaintzaren kopuruan ageriko akatsa dutenak.
- Lizitatzailen onartzen duenean eskaintzak bideraezin egiten duten akatsak edo funsgabetasunak dituela.

## 19 ESLEIPEN PROPOSAMENA.

- Argibideak. Esleipen-proposamena egin aurretik, kontratazio-mahaiak eskaintzen alderdiren bat argitzeko argibideak eskatu ahal dizkie enpresa lizitatzailen. Edozein kasutan, ez da onartuko argibideen prozesuan enpresa lizitatzailen eskaintza adierazitakoa aldatzea. Hasiera batean egindako proposamenaren azterketa erraztuko duen informazioa bakarrik onartuko da.
- Kontratazio-organoan aurkeztea. Kontratazio-organoak aurkeztu diren proposamenen zerrenda bidaliko dio kontratazio-organoari, eskaintzen balorazio-irizpideak kontuan hartuta proposamen garrantzitsuetatik hasita, eta onartu ez direnak edo baztertu direnak, egindako txostenak, egiten den esleipen-proposamena eta egokitzen jotzen dituen oharrak adieraziko ditu.
- Ondorioak. Esleipen-proposamenak ez dio eskubiderik ematen lizitatzailen enpresa kontratugilearen aurrean. Dena den, kontratazio-organoak kontratua egindako proposamenari jarraiki esleitzen ez badu, erabaki hori arrazoitu egin beharko du.

## IV. KONTRATUA ESLEITZEA ETA ESLEIPENA JAKINARAZTEA

### 20 ESLEIPENEAN AUKERATU DEN LIZITATZAILEN DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

- Eskaintza ekonomikoki onargarriena aurkeztu duen lizitatzailen errekerimendua egingo dio kontratazio-organoak, gehienez hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hasita, ondorengo ziurtagiriak aurkez ditzan:
  - Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela justifikatzen duten agiriak.



- b) Esleipen-prezioaren % 5eko zenbatekoagatik behin betiko bermea eratu dela justifikatzen duten agiriak, BEZ kanpo.
- c) Iragarki ofizialen zenbatekoa ordaindu dutela egiaztatzea.
- d) Kontratazeko edo kontratua gauzatzeko hitzartutako edo kontratazio-organoak eskatu bitartekoak badituela ziurtatzen duten agiriak.
- 20.2 Zerga-betebeharrak egunean dituela ziurtatzeko dokumentazio hau aurkeztuko da (HAKLEOren 13. eta 15. artikulua):
- a) Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren azken ordainagiria edo bertan alta emanda dagoela frogatzen duen agiria, baldin eta berriki alta eman bada eta oraindik ordainketa egiteko betebeharrak sortu ez bada. Edozein kasutan, alta erantsiko da, aurkeztutako ordainagirian jardueraren epigrafea agertzen ez bada. Dokumentazio hori kontratuaren xedeari dagokion epigrafeari buruzkoa izango da eta jarduerak gauzatu dituzten lurralde-esparruan aritzeko ahalmena emango die. Gainera, zerga horren matrikulan baja eman ez dutela adierazten duen ardurapeko aitortza ere aurkeztu beharko dute. Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialeko ziurtagiria eta ziurtagirian adierazitakoak aldaketarik jasan ez duela adierazten duen enpresaren ardurapeko aitortza (IV. Eranskin) aurkezten badira, ez dira aipatutako agiriak aurkeztu behar izango, baina aipatutako zergan baja eman ez dutela adierazten duen aitortza aurkeztuko da.
- b) HAKLEOren 15.2. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla ziurtatzen duen Zerga Administrazioaren eskumeneko organoak lutzatutako ziurtapen positiboa. Euskadiko Kontratisten Erregistroko inskripzio indarrean dagoela ziurtatzen duen agiria dutela ziurtatu dutenen kasuan, ez dute aipatutako ziurtagiria aurkeztu behar izango, baldin eta inskripzio indarrean badago eta dagokion ziurtagirian adierazitakoa aldatu ez bada. Kasu horretan, enpresak espresuki adieraziko du aipatutako gutzia kontratuan formalizatzen den dokumentuan.
- HAKLEOren 13. artikuluan zerrendatutako zerga-betebarrei dagozkien aitortzen edo dokumentuak aurkezteko betebeharrak ez duten enpresek, hori horrela dela adierazten duen ardurapeko aitortza aurkeztuko dute.
- 20.3. Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean dituztela ziurtatzeko, eskumeneko administrazio-agintaritzaren ziurtapen positiboa aurkeztuko da, HAKLEOren 15.2. artikuluan jasotako baldintza formalak barne hartuta.
- . Salbuespenen bat kontuan hartu behar bada, ardurapeko aitortza bidez ziurtatuko da hori horrela dela. Prozeduraren baitan enpresak Euskadiko Kontratisten Erregistroko inskripzio indarrean dagoela ziurtatu badu, ez du aipatutako ziurtagiria aurkeztu behar izango, baldin eta inskripzio indarrean badago eta dagokion ziurtagirian adierazitakoa aldatu ez bada. Kasu horretan, enpresak espresuki adieraziko du aipatutako gutzia, kontratuan formalizatzen den dokumentuan.
- 20.4. Behin betiko bermea jarraian aipatuko den moduan eratu eta ziurtatuko da:
- a) Esku-dirutan edo Zor Publikoko balioetan. Esku-dirutan egiten bada, enpresa kontratugileak emango duen banku-kontuko zenbakian egingo da ordainketa; idatzitako balioen ondasun ibilgetuen ziurtapen kasuan, kontratazio-organoaren aurrean egingo da gordailua.
- b) Abal bidez. Abalak baimendutako banku, aurrezki-kutxa, kreditu-kooperatiba, kreditu-establezimendu finantzario eta elkarrekiko berme-sozietateek emandakoak izango dira eta kontratazio-organoaren aurrean egingo da gordailua.
- c) Kauzio-aseguraren kontratu bidez, dagokion adarrean eragiteko baimendutako aseguru-entitate batekin. Kontratazio-organoaren aurrean egingo da aseguru-ziurtagiriaren gordailua.
- 20.5 Iragarki ofizialen zenbatekoa ordaindu dutela ziurtatzen duen ziurtagiria.
- 20.6 Epearen barruan aipatu berri den baldintza betetzen ez bada, lizitatuak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da. Horrela bada, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatuari, eskaintzen sailkapenaren hurrenkeran.

## 21 KONTRATUA ESLEITZEA ETA ESLEIPENA JAKINARAZTEA

### 21.1. Kontrata esleitzea.

- 21.1.1 Kontratazio-organoak aurreko paragrafoan adierazitako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunetan esleituko du kontratua.
- 21.1.3 Esleipenak arrazoitua izan behar du.
- 21.1.4 Huts geratzea: Kontratazio-organoak lizitazioa huts geratu dela erabaki ahal izango du, baldin eta orri honetan adierazitako irizpideen arabera onar daitekeen eskaintzarik edo proposamenik ez dagoela uste badu.
- 21.1.5 Esleipenari uko egitea eta prozeduran atzera egitea: Esleipena egin aurretik, kontratazio-organoak kontratuaren esleipenari uko egin ahal izango dio, espedientean behar den bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik, edo esleipen-prozeduran atzera egitea erabaki dezake, baldin eta kontratua prestatzeko arauetan edo esleipen-prozedura arautzen dutenetan zuzendu ezin den arau-hauste bat gertatu bada.

### 21.2 Esleipena jakinaraztea eta argitaratzea.

- 21.2.1 Esleipena hautagaiei edo lizitatuak jakinaraziko zaie eta kontratazio-argitaratuko da aldi berean.
- 21.2.2 Jakinarazpena hartzaileak jaso duela ziurtatzeko modua ahalbidetzen duen edozein bitarteko erabiliz egingo da. Edozein kasutan, kanpoan utzi den lizitatuari edo hautagaia esleipen-erabakiaren aurkako errekurtsio nahikoa arrazoitua aurkezteko aukera emango zaio, SPKLTBren 40. artikuluan araberak. Zehazki, honako alderdi hauek adieraziko dira:
- a) Baztertutako hautagaiei dagokienez, hautagaitza bakoitza baztertzeko arrazoiak azalpen laburra.
- b) Esleipen-prozeduratik kanpo utzitako lizitatuak dagokienez, beren eskaintza ez onartzeko arrazoiak azalpen laburra.
- c) Edozein kasutan, esleipendunaren izena eta esleipendun horren proposamena onartutako gainerako lizitatuak eskaintzen aurretik onartzeko kontuan hartu diren ezaugarriak eta abantailak.
- 21.2.3 Esleipenaren arrazoiak SPKLTBren 153. artikuluan adierazitako konfidentzialtasun-salbuespena aplikatuko zaio.

## V. KONTRATUA FORMALIZATZEA ETA PUBLIZITATEA

## 22 KONTRATUA FORMALIZATZEA

### 22.1 Epea:

- 22.1.1 Kontrata dokumentu pribatua formalizatuko da, 151.4 artikuluan aurreikusitako moduan, hamabost (15) egun balioduneko epearen barruan, lizitatuak edo esleipendunak esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Lizitazioaren baldintzetara egokituko da kontratua formalizatzeko aipatutako dokumentua eta une horretan bertan osatuta geratuko da kontratua.

## 22.2 Akreditazioak aurkeztea:

Aurreko 22.1 atalean adierazitako epeen barruan, eta kontratua formalizatu aurretik, esleipendunak honako akreditazio hauek aurkeztu beharko ditu:

- a) Orri honetan exijitutako aseguru-polizak edo –ziurtagiriak.
- b) Esleipenduna enpresa-elkarte bat bada, aldi baterako enpresa-elkartearen eratzearen eskritura publikoa aurkeztuko du (SPKLTBren 59. artikulua), eta elkartzearen iraupena kontratua amaitu arte luzatuko da.

22.3. Ezin izango da kontratuaren gauzatzea hasi, baldin eta kontratua formalizatu ez bada, SPKLTBren 113. artikuluan aurreikusitako kasuetan izan ezik.

## 22.4.- Ez-formalizatzeak dakartzan ondorioak:

- 22.4.1.- Kontratazio-organoari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik kontratua 22.1. puntuan adierazitako epean formalizatzen ez bada, kontratistari kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio, atzerapena dela-eta eragindako kalte eta galerengatik.
- 22.4.2.- Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak kontratistari egotzi ahal zaizkion kasuetan, kontratazio-organoak behin betiko bermea konfiskatzea erabaki ahal izango da, atzerapena dela-eta eragindako kalte eta galerengatik. Hala ere, konfiskatzea nahikoa ez bada, enpresa kontratistak atzerapenak eragindako kalte eta galerak ordaindu beharko ditu.

## 23 KONTRATUEN FORMALIZAZIOAREN PUBLIZITATEA.

Kontratuaren edo kontratuen formalizazioaren publizitatea egingo da, ezarritako irizpideen arabera aplikatu daitezkeen SPKLTBren 154. artikuluko xedapenen arabera.

## VI. KONTRATUA GAUZATZEA

### 24 GAUZATZEA ZUZENTZEA ETA IKUSKATZEA, KONTRATUAREN ARDURADUNA.

24.1 Kontratazio Organoak kontratuaren arduraduna izenda dezake. Arduradun horren lana izango da kontratuaren gauzatzea zuzentzea eta gainbegiratzea, hitzartutako zerbitzua behar den bezala eskaintzen dela ziurtatzeko jarraibideak ematea eta gauzatzea eta hartu beharreko erabakiak betetzen direla ziurtatzea, berari dagozkion eskumenen barruan.

Kontratuaren pertsona arduraduna pertsona fisiko edo juridiko bat izango da eta titulazio eta kualifikazio egokia eta nahikoa edukiko du, erakunde, organismo edo entitate kontratugileari dagokionez. Bere lana betetzeko, bere aginduetara egongo diren laguntzaileak izan ditzake. Laguntzaile horiek euren titulu profesionalen edo ezagueren arabera egingo dute lana.

Kontratuaren pertsona arduradunak eta bere laguntzaileek kontratatutako zerbitzugintza eskainiko den lekuetara sartzeko askatasuna edukiko du.

Kontratazio-organoak egiten duen izendapena enpresa kontratistari jakinaraziko zaio idatziz. Kontratua gauzatzean izendapen hori aldatuko balitz, aldaketa idatziz jakinaraziko zaio enpresa kontratistari.

### 25 LANEN HASIERA.

Lanak hasteko data ofiziala, gauzatze epea kontatzen hasteko ondorioetarako, 2014/03/01 da.

### 26 KONTRATUAREN GAUZATZEAREKIN ERLAZIONATUTAKO BESTE KLAUSULA BATZUK.

26.1 **Arriskua eta mentura:** Kontratua kontratistaren arriskuz eta menturaz gauzatuko da.

26.2 **Kontratu-izaerako dokumentuak eta jarraibideak betetzea.** Baldintza teknikoan agiriari, lanen programari eta agiri honetan zehaztutakoari eta kontratu-izaera duten gainerako dokumentuei zorroztz lotuta gauzatuko da kontratua, eta beti, horiek gauzatze edo interpretatzeko enpresa kontratugileak enpresa kontratistari emango lizkiokeen jarraibideen arabera. Enpresa kontratistak ezin izango du aldaketarik sartu edo gauzatu kontratatutako baldintzetan, baldin eta EUSKADIKO KIROL PORTUA, SA sozietateak aldaketa horiek onartzen ez baditu.

Hitzartutakoa gauzatzearekin lotuta, kontratuaren beraren edozein arlo, edo kontratuaren eranskin diren dokumentuak, edo enpresa kontratugileak onartutako edozein motatako agindu, agiri edo arau ez ezagutzeak, enpresa ez du salbuetsiko atal hori betetzeko obligaziotik.

26.3 **Laneko programa:** Kontratistak laneko programa bat aurkeztuko du, C gutun-azala.

26.4 **Enpresa kontratugilearekin lankidetzak:** Kontratistak enpresa kontratugilearen esku jarriko ditu, kostu gehigarririk gabe, kontratuaren xedea behar bezala garatzeko eta betetzeko behar dituen zerbitzu profesional guztiak, hala nola azalpen-bileretara joatea, informazio puntuala ematea eta abar.

26.5 **Gauzatze behar diren baimenak lortzea:** Enpresa kontratistari dagokio zerbitzuei ekiteko beharrezkoak diren baimen eta lizentzia guztiak lortzea, bai publikoak bai pribatuak.

26.6 **Gauzatze gastuak:** Erakunde publiko edo pribatuak lizentziak, dokumentuak edota edozein informazio lortzeko gastuak kontratistak ordainduko ditu. Halaber, indarrean dauden xedapenen arabera aplikatzekoak diren zergak, eskubideak, tasak edo konpentsazioak zein gainerako kargak edo gastuak ere kontratistak ordainduko ditu, xedapen horiek adierazten duten moduan eta zenbatekoan.

26.7 **Lanengatik aseguruak eta erantzukizuna, kalte eta galerak:** Enpresa kontratistak izango du egiten dituen lanen eta eskaintzen dituen zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna, baita kontratua gauzatzean egiten dituen utzikieriek, akatsek, metodo desegokiek edo okerreko ondorioek enpresa kontratugileari edo hirugarren batzuei eragin diezazkieten ondorioena ere (SPKLTBren



305. *artikulu*). Kontrata profesional edo enpresa batek baino gehiagok batera gauzatzen badute, guztiek erantzungo dute solidarioki.

Kontrata gauzatzeko eragiketen ondorioz, hirugarreni eragin ahal zaizkien kalte eta galera guztien kalte-ordainak kontratistak ordainduko ditu. Kalte eta galera horiek zuzenean eta berehala enpresa kontragileak emandako aginduen ondorioz gertatzen badira, enpresa kontratugilearena izango da ardura, legeetan aipatutako mugen barruan (SPKLTBren 214. artikulua).

*Xede horretarako, enpresa kontratistak Erantzukizun Zibileko aseguru-poliza bat kontratatuko du eta aseguru-poliza horretan barne hartuko dira Ustiapen, Patronal eta Lanen Bermeak. Aseguratutako kapitala gutxienez 450.000 € ezbehar bakoitzagatik izango da eta biktima bakoitzagatik gutxienez 150.000 € izango dira. Aipatutako polizaren kopia bat enpresa kontratugileari emango dio.*

26.8 **Bitarteko materialak eta pertsonalak eta subrogazioa lan-harreman jakin batzuetan:** Zerbitzugintza edo prestazioa egiteko, kontratistak kontratua ondo gauzatzeko beharrezkoak diren tresneria eta bitarteko osagarriak jarri beharko ditu.

**Gaur egun** Hondarribi, Getaria, eta Orio **kirol-portu eta -ditxoetan lan egiten duten langileak subrogatzeko betebeharrak dago.** (Eskaintza aurkeztu duten enpresen dokumentazioa Gasteizko EKPren bulegoetan dute eskura).

Enpresako langile guztiak enpresa kontratistaren mendeko langileak dira eta enpresak enplegu-emaile gisa dagozkion eskubideak eta betebeharrak bakarrik edukiko ditu.

Enpresa kontratugileak eskatzen badu, enpresa kontratistak kontrata gauzatzeko atxikitako pertsonen izenak, kategoria profesionala eta kualifikazio teknikoak adieraziko ditu. EUSKADIKO KIROL PORTUA, SA sozietateak ez du inolako zerikusirik edukiko enpresa esleipendunak kontratu honen xedea betetzeko eduki behar dituen lan-harremanekin.

Kontrata indarrean dagoen bitartean, dedikazio osoarekin lan egiten duten langileek ezin izango dute beste lan batean parte hartu. Bestalde, enpresa kontratistak ezin izango ditu langile profesionalak kontratatu, enpresa kontratugileak espresuki baimentzen ez badu.

Enpresa kontratugileak egokia iruditzen ez zaion edozein elementu atzera bota ahal izango du, eta idatziz jakinarazten duen dataren biharamunetik hasita hamar egun naturaleko epean, erabaki hori erreklamatzeko eskubidea izango du enpresa kontratistak.

26.9. **Kontratistak Lan-legerian, Gizarte Segurantzarenean eta Laneko Segurtasun eta Osasunarenean dituen betebeharrak:** Enpresa kontratistak lan-legerian, Gizarte Segurantzarenean eta Laneko Segurtasun eta Osasunarenean indarrean dauden xedapenak beteko ditu eta, bereziki, honako hauek:

26.9.1 Enpresa kontratistak langileen bizitza, integritatea eta osasuna eragin dezaketen arriskuak ahalik eta hobekien prebenitzeko beharrezkotzat jotzen dituen edo derrigorputa dagoen laneko segurtasun eta osasunaren alorreko neurriak hartuko ditu.

26.9.2. Bestalde, indarrean dagoen legeriak laneko arriskuen prebentzioaren esparruan ezarritako betebeharrak beteko ditu, eta kontratatutako jarduerari ekin aurretik, jarraian aipatutako diren betebeharrak betetzen dituela ziurtatuko du:

- Indarrean dagoen legeriaren arabera antolakuntza prebentiboko modalitate bat hartu izana.
- Laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa-sistema orokorrean integratzea. Horretarako, laneko arriskuen prebentziorako plan bat ezarri eta aplikatuko du, urtarrilaren 17ko 39/1997 EDk onartutako Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduko 2. artikulua araberak. Aipatutako eskakizuna ziurtatu dela ulertuko da, baldin eta 18001 OHSAS Arauan, LANeko segurtasun- eta osasun-sistemei buruzko jarraibideetan edo horren pareko beste arau batean oinarritutako laneko arriskuak prebenitzeko kudeaketa-sistema bat ezarrita badu eta aipatutako sistemak eskatzen diren neurriak betetzen direla ebaluatzen eta ziurtatzen badu. Betebehar hori betetzen dela ziurtatzeko beste edozein bitarteko egoki erabili ahal izango da, halaber.
- Kontratutako jarduerari dagokion arriskuen ebaluazioa eta jarduera prebentiboaren plangintza.
- Idatzizko prozedura bat edukitzea, laneko arriskuen prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen V. Kapituluan aurreikusitako Kontsulta eta Partaidetza burutzeko modua arautuko duena, edo, hala badagokio, Segurtasun eta Osasun Batzordearen bileren aktak.
- Ezarritako segurtasun-neurriak betetzen direla kontrolatzeko prozedura bat edukitzea. Edozein kasutan, Langileen Estatutuan, hitzarmen kolektiboan eta abar aurreikusitako diziplina-neurriak hartuko dira langile guztien segurtasuna ziurtatzeko.
- Arriskuen ebaluazioarekin erlazionatutako prebentzio-baliabideak egotea eskatzen duten lanpostuen eta/edo jardueren zerrenda bat edukitzea.
- Kontrata gauzatzen parte hartzen duten langile guztiek, enpresarenak direnek zein besterenak direnek, lanean hasteko unean arrisku espezifikoen, babes-neurrien eta larrialdi-neurrien informazioa jaso izana

eta beren jardura eragiten duten arriskuei buruz beharrezkoa den prestakuntza jaso izana (31/1995 Legearen 18. eta 19. artikulua eta 1109/2007 Errege Dekretua), planeko prozeduraren arabera. Bereziki, NBEen erabilerari buruzko prestakuntza egokia jaso izana.

- Beharrezkoa bada, norbera babesteko ekipamendua eman zaiela justifikatzen duten agiriak edukitzea.
- Jangela- eta atsedeen-zerbitzu egokiak, zerbitzu higienikoak eta aldagelak eskaintzea, langileen kopurua eta laneko zonen kokapena kontuan hartuta.
- Lanen garapena eta langileen kontratazioa planifikatzea, betiere langileen atsedeen-egunak errespetatuz eta aparteko orduak salbuespenetan bakarrik sartuko direla ziurtatuz.

26.9.3 Lanak gauzatzeko langileek ezbeharrik edo kalterik jasanez gero, indarrean dauden arauetan xedatutakoa beteko dute, beren ardurapean, eta ez du inolako eraginik edukiko enpresa kontratugilearen gainean.

## 27 GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK.

27.1 **Kontrata gauzatzeko hizkuntza-baldintzak.**

27.1.1 Kontratuaren xedea osatzen duten azterketak, txostenak, proiektuak edo bestelako lanak bi hizkuntza ofizialetan egingo dira.

27.1.2 Zerbitzuak hirugarreni edo oro har herritarrei eskaini behar zaizkienean, edo horiekin harremanak eduki behar direnean, erabilizaileak edo hirugarrenak aukeratuko du kontrata gauzatzeko enpresa arduradunaren eta erabilizaileen arteko ahozko zein idatzizko harremanetan komunikatzeko erabiliko den hizkuntza. Hizkuntza bat berariaz aukeratzeko ez denean, esleipenaren enpresa arduradunak pertsona fisikoekin edo juridikoekin edukiko dituen jakinarazpenak eta komunikazioak bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, fakturak eta trafikoko-agiriak barne. Edozein kasutan, herritarrek eskubidea edukiko dute

nahi dutenean hizkuntza bat aukeratzeko, eta hizkuntza ofizialeko bat bakarrik erabiltzea eskatzeko eskubidea edukiko dute, halaber.

#### 27.2 **Gauzatze baldintza bereziak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ziurtatzeko:**

27.2.1 Kontratua gauzatzean, enpresa kontratistak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ziurtatu du tratuan, enplegua lortzeko orduan, sailkapen profesionalan, sustapenean, iraunkortasunean, prestakuntzan, ezereztean, ordainsarrietan, laneko kalitatean eta egonkortasunean eta lanaldiaren iraupenean eta antolakuntzan. Bestalde, kontratua gauzatzean enpresa kontratistak neurriak hartuko ditu kontratua gauzatze atxikitako pertsonen bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateragarri egiten lagutzeko.

27.2.2 Bestalde, enpresa kontratistak 10 langile baino gehiago hartuko ditu eta kontratua gauzatze atxikitako langileen harremanetan sexu-jazarpena prebenitzeko neurriak hartuko ditu, hala nola: jardunbide egokien kodeak landu eta zabalduko ditu, informazio-kanpainak edo prestakuntza-ekintzak garatuko ditu, edo sexu-jazarpena prebenitzeko eta jazarpena jasan duten pertsonen salaketak edo erreklamazioak aurkezteko prozedura espezifikoko ezarriko ditu.

27.2.3 Kontratua gauzatze langile berriak kontratatu behar badira eta enpresa kontratistak plantillan dituen emakumeen ordezkariak desorekatu bada, kontratua gauzatze epeak irauten duen bitartean, gutxienez emakume berri bat kontratatzen saiatuko da, edo emakume baten aldi baterako kontratazioa egingo du, kontratazio mugagabearekin. Plantilla desorekatua dela ulertuko da, baldin eta plantillako ehunetik 40 baino gutxiago emakumeak badira.

#### 27.3 **Gauzatze baldintza bereziak enpleguaren kalitateari eta oinarrizko lan-eskubideei dagokienez.**

27.3.1 Enpresa esleipendunak kontratua gauzatze atxikitako plantillaren % 30ek, gutxienez, kontratu mugagabea edukitzeko betebeharra hartzen du. Betebehar hori ez da bete behar izango, baldin eta enpresako % 80k baino gehiagok kontratazio mugagabea badute.

27.3.2 Portzentajea zenbatzeko, kontuan hartuko da kontratua gauzatze behar diren langileen guztizko kopurua, eta zenbaketa horren barruan sartuko da kontratua gauzatze azpikontratutako enpresen langile kopurua.

27.3.3 Halaber, kontratua gauzatzean ekoizpen-kate osoan oinarrizko lan-eskubideak errespetatzeko betebeharra du, eta horretarako, Lanaren Nazioarteko Erakundearen funtsezko Konbentzioen betetzea exijituko du, besteak beste, askatasun sindikalari eta negoziatio kolektiboari dagozkionak, derrigorrezko lana desagerrarazteko betebeharra, arraza, kolorea, sexua, erlijioa, iritzi publikoa, jatorri nazionala edo gizarte-jatorria dela eta enpleguan diskriminazioa desagerraraztekoa eta haurren lana deuseztatzeko betebeharra.

#### 27.4 **Gauzatze baldintza bereziak lan-txertatzea eta gizarteratzea ziurtatzeko:**

27.4.1 Enpresa esleipendunak aurreko plantilla subrogatzeko betebeharra bere gain hartzen du, hortaz, lan-txertatzea aipatutako betebeharraren arabera moldatuko da. Dena den, kontratatutako prestazioa gauzatze kontratazio berriak egin behar badira, enpresa esleipendunak konpromisoa hartzen du kontratazio berri horien % 50 enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten pertsona langabetuak kontratatze izateko, ahal den neurrian.

27.4.2 Jarraian aipatuko diren pertsonak dira enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituztenak:

- a) Oinarrizko errenta jaso eta txertaketa-hitzarmen bat sinatu duten pertsonak (dagokien oinarrizko gizarte-zerbitzuaren ziurtapen bidez ziurtatuko da aipatutako programaren onuradun direla).
- b) 30 urte baino gehiago eduki eta kontratazio hau beren lehen lan-esperientzia duten emakumeak, baita bost urtez ez-aktibo egin ondoren kontratatutako ere (lan-bizitzaren txosten batekin ziurtatuko da).
- c) % 33ko ezintasuna edo altuagoa aitortuta duten pertsona ezinduak (eskumeneko organismo ofizialak luzatutako ezintasun-ziurtagiriaren bidez ziurtatuko da).
- d) Etxeko indarkeriaren biktimak, hau da, ezkontidearen edo beraiekin antzeko afektibitate-harreman bat eduki duen pertsonaren aldetik zein asaben, ondorengoen edo anai-arreben aldetik indarkeria fisikoa edo psikikoa jasan duten pertsonak, betiere epai kondenatzaile baten edo biktimaren aldeko babes-neurri baten bitartez egoera hori ziurtatu bada, edo, salbuespen moduan, babes-neurria izapidetu bitartean, Ministerio Fiskalaren txosten bidez adierazten bada salaketa jarri duen pertsona aipatutako indarkeriaren biktima dela adierazten duten zantzuak daudela.
- e) Gaixotasun mental bat duten pertsonak (txosten medikuaren bitartez ziurtatuko da).
- f) Guraso bakarreko familia baten aita edo ama, betiere langabetu gisa gutxienez hiru hilabetez antzinasuna dutela ziurtatzen badute. Ondorio horietarako, horrelako egoera batean daudela ulertuko da, soldatapeko jardura bat garatzen ez duten ondorengo pertsona bat edo gehiago beren kargura duten pertsonak (elkarbizitza-ziurtagia, Familia Liburua eta beren kontura soldatapeko jardura bat garatzen ez duen pertsona bat edo gehiago dituela ziurtatzen duen zinpeko aitortpena aurkeztuko da egoera hori ziurtatzeko, baita dagokion Enplegu Zerbitzu Publikoak, autonomikoak zein estatukoak, langabetu gisa izena emanda egon den aldiei buruz luzatutako ziurtagiria ere).
- g) EBtik kanpoko etorkinak, gutxienez 6 hilabetez jarraian langabetu gisa izena emanda egon badira (dagokion Enplegu Zerbitzu Publikoak, autonomikoak zein estatukoak, langabetu gisa izena emanda egon den aldiei buruz luzatutako ziurtagiriaren bitartez ziurtatuko da).
- h) Iraupen luze langabetuak, gutxienez 12 hilabetez jarraian dagokien enplegu-zerbitzu publikoan langabetu gisa izena emanda egon badira (dagokion Enplegu Zerbitzu Publikoak, autonomikoak zein estatukoak, langabetu gisa izena emanda egon den aldiei buruz luzatutako ziurtagiriaren bitartez ziurtatuko da).
- i) 45 urtetik gorako pertsonak, gutxienez 3 hilabetez jarraian langabetu gisa izena emanda egon badira (dagokion Enplegu Zerbitzu Publikoak, autonomikoak zein estatukoak, langabetu gisa izena emanda egon den aldiei buruz luzatutako ziurtagiriaren bitartez ziurtatuko da).
- j) 16-30 urte arteko pertsona gazteak, gutxienez 5 eta 12 hilabete artean jarraian langabetu gisa izena emanda egon badira (dagokion Enplegu Zerbitzu Publikoak, autonomikoak zein estatukoak, langabetu gisa izena emanda egon den aldiei buruz luzatutako ziurtagiriaren bitartez ziurtatuko da).
- k) Adingabeak babesteko erakundeetatik datozen pertsonak, betiere lan-munduan txertatzeko prozesua aipatutako erakundetik irten eta ondorengo hamabi hilabeteetan garatzen bada (dagokion erakunde-ziurtagiaren bitartez ziurtatuko da).
- l) Toxikomano ohiak (alkoholiko ohiak eta drogazale ohiak), betiere talde terapeutiko baten ustez desintoxikatze eta ohitura galtzeko faseak gaudituz eta tratamenduan 6 hilabetez gora, etenik gabe, badaramate (dagokion Osasun Zentroaren ziurtagiriaren bitartez ziurtatuko da).
- m) Espetxeetan barneratuta dauden pertsonak, baldin eta lan-kontraturik ez badute eta espetxeko erregimenak lanpostu batean hasteko aukera ematen badie, eta espetxean egondako pertsonak, langabetu gisa izena emanda badaude, betiere

kontratazioa kalera irten eta ondorengo 12 hilabeteetan egiten bada (dagokion erakundearen ziurtapenaren bitartez ziurtatuko da).

- n) Eskatzen duen edozein pertsona, baldin eta oinarrizko gizarte-zerbitzuen ustez lan-txertatzea lortzeko berariazko esku-hartze edo jarduketa bat behar badu (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek ziurtatuko dute).
- o) Ekintza terrorista bat jasaten duten edo jasan duten pertsonak, edo talde armatuetako kide direnak, baldin eta herritarren bakea eta segurtasuna urratzeko helburuarekin jarduten bazuten. Era berean, talde honetan sartuko dira, formalki taldeetako kide izan ez diren baina helburu berarekin jardun duten pertsonak.

Kontratuko zerbitzugintza gauzatzeko egiten diren kontratazio berrien % 50 enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten pertsona langabetuengana zuzentzeko ezintasuna onartuko da, baldin eta enplegu-zerbitzu publikoek eta oinarrizko gizarte-zerbitzuek aurkeztutako enplegu-eskaintza erantzun ezin badute edo ekoizpen eta antolakuntzako arrazoia zein arrazoi teknikoak edo ekonomikoak badira. Edozein kasutan, arrazoi horiek guztiak behar den bezala ziurtatuko dira.

#### 27.5 **Gauzatzeko baldintza bereziak laneko segurtasuna eta osasuna ziurtatzeko:**

Esleipendunak honako betebeharrak hauek beteko ditu, enpresa kontratistaren eta azpikontratisten kontura:

- a) Prebentzio-planaren arabera, zuzendaritza-lanak betetzen dituzten eta laneko arriskuen prebentzioa beren jardueretan eta erabakietan barne hartzeko beharrezkoa den prestakuntza jaso duten pertsonak edukitzea.
- b) Eskaintzen den zerbitzua aldiro ikuskatzeko prozedura bat edukitzea, baldin eta garatzen den jardura langileen laneko segurtasun eta osasunerako arriskutsua izan badaiteke. Horretarako, Prebentzio Planaren baieztapen espezifikoak egiteko prozeduran ezarritako jarraibideak beteko dira. Prozedura horretan barne hartuko da Arriskuen Ebaluazioan/Segurtasun eta Osasun Planean aurreikusitako babes kolektiboko neurrien aldiroko baieztapena, baita NBEen erabilera eraginkorraren baieztapena ere.
- c) Kontratu gauzatzeko langile etorkinak barne hartzen badira, prebentzio-sistema egoki bat ziurtatzeko komunikazio eraginkorra ahalbidetuko duten prozedurak eskaintzea.

## 28 **KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.**

28.1 **Konfidentzialtasuna.** Enpresa kontratistak kontratuak gauzatzeko eskuratzen duen informazio guztia konfidentziala da. Kontratistak edo kontratua gauzatzeko izendatzen duen pertsonak ezin izango du kontratatutako lanei buruzko inolako daturik edo kontratua gauzatzeko eskura dezakeen informazioa berretzat erabili edota hirugarrenei eman, enpresa kontratugilearen idatzizko baimenik gabe. Beraz, eskura dituen baliabide guztiak jartzera behartuta egongo da, informazioaren zein egindako lanetatik ateratako emaitzen izaera konfidentziala eta ezkutukoa gordetzeko (SPKLTBren 140.2. artikulua). Edozein kasutan, datu pertsonalen tratamendua egitea eskatzen ez duten lanak burutzean, debekatuta dute enpresak eta bere langileek datu pertsonalak eskuratzea, eta isilpean gorde beharko dituzte zerbitzua eskaintzeari buruzkoak langileek ezagutu ahal izan dituzten datuak (1720/2007 Errege Dekretuaren, abenduaren 21koa eta Datu Pertsonalak Babesteko Legea garatzeko denaren, 83.2. artikulua).

28.2 **Datu pertsonalen tratamendua.-** Datu pertsonalen tratamenduari buruzkoak, pertsona fisiko identifikatuak edo identifikagarriak edozein informazio eragiten duten grabaketa, kontserbazio, lantze, aldaketa, blokeo eta ezereztzeko eragiketa eta prozedura tekniko automatizatuak, bai eta komunikazio, kontsulta, elkarkonexio eta transferentzien ondoriozko datu-konexioen eragiketa eta prozedura tekniko automatizatuak ere.

Kontratuaren baitan datu pertsonalen tratamendua egin behar bada, edo enpresa kontratistak edo azpikontratistak datu pertsonalak eskuratu behar baditu, SPKLren hogeita hamargarren xedapen gehigarrian xedatutakoa eta ondoren aipatutako diren arauetan xedatutakoa beteko da:

1. Kontratistak tratamenduari buruzkoak ematen dizkion jarraibideak betez bakarrik egingo du datuen tratamendua.
2. Tratamenduari buruzkoak diren datu pertsonalak kontratuaren xedea gauzatzeko erabiliko dira bakarrik eta ezingo zaie bestelako erabilerririk eman.
3. Kontratu honen ondorioz tratatzen diren datu pertsonalak ez zaizkie hirugarreni utziko. Xede horretarako, kontratistak konpromisoa hartzen du datu horiek edo datuekin sortutako fitxategiak hirugarren bati ez jakinarazteko, emateko, lagatzeko edo komunikatzeko, ahoz zein idatziz eta bitarteko elektronikoen bidez, paperean edo informatikoki, ezta bistartzeko ere.
4. Kontratistak eta kontratuaren xedea den zerbitzua eskaintzen parte hartzen duten langile guztiek 15/1999 Lege Organikoaren, abenduaren 13koa eta datu pertsonalak babesteari buruzkoa denaren, 10. artikuluan aipatzen den datuak isilpean gordetzeko betebeharra betetzeko konpromisoa hartu dute. Betebeharrak hori kontratua amaitzean, bete delako edo suntsiarazi delako, ere luzatuko da.
5. Kontratistak konpromisoa hartzen du 15/1999 Lege Organikoaren, abenduaren 13koa eta datu pertsonalak babesteko denak eskatzen dituen neurri teknikoak, administratiboak eta antolakuntzakoak hartzeko, kontratuaren xede diren lanak gauzatzeko tratatutako diren datu pertsonalen segurtasuna ziurtatzeko:
  - a) Zentzu horretan, enpresak kontratazio-organismoari zerrenda bat emango dio, lanek hasi aurretik, datu pertsonalak eskura ditzaketen langile guztien izen, abizen, zeregin eta lan egingo duten lekuekin. Kontratu gauzatzeko bitartean langile gehiago behar badira edo langileren bati baja eman behar bazaio, enpresa esleipendunak zerrenda berri bat emango du, aldaketa egiten denetik gehienez ere aste bateko epean. Enpresa esleipendunak eta zerrendetan adierazitako langileek tratatzen dituzten datuen sekretu profesionala gordeko dutelako idatzizko konpromiso formalak hartuko dute.
  - b) Esleipendunaren betebeharra izango da beharrezkoak diren tratamendu-zentro, lokal, ekipa, sistema eta programen segurtasun-neurriak ezartzea.
  - c) Kontratuaren xede den zerbitzua amaitu eta gero, esleipendunak dituen datu pertsonalen euskarri guztiak itzuliko dira edo datu pertsonalak dituzten fitxategi guztiak suntsituko edo ezabatuko ditu. Datuak suntsitzean, datuak berreskuratzeko edozein prozesu aplikatzea ezinezkoa izango dela ziurtatuko da. Fitxategiak itzultzeko edo suntsitzeko ziurtapena esleipendunaren ordezkariak eta lanen zuzendariak sinatutako akta bidez egingo da.
6. Enpresa kontratugileak aldiroko kontrolak egiteko eskubidea erreserbatuta du, kontratua indarrean dagoen bitartean ezarritako segurtasun-neurriak betetzen direla egiaztatzeko eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak hartzeko.

## 29. **LAN AKASTUNAK EDO GAIZKI EGINAK**

Finkatutako berme-epaia amaitu arte, kontratatutako lanak behar bezala egiteko eta lan horietan egon litezkeen akatsen aurrean erantzukizuna izango du enpresa kontratistak. Halaber, aipatutako lanak egiten diren bitartean enpresa kontratugilearen ordezkariak lan horiek aztertu izanak edota egiaztapen, balorazio edo ziurtapen partzialetan onartu izanak ez du kontratista aipatutako erantzukizunetik

salbuetsiko eta ez dio inolako eskubiderik emango. Enpresa kontratistak ez du erantzukizunik izango antzemandako akatsak enpresa kontratugilearen agindu baten edo hark ezarritako baldintzen ondorio zuzena direnean.

Enpresa kontratugilearen iritziz egindako lana kontratatutako zerbitzugintzarekin bat ez badator, HAKLEOren 203. eta 204. artikuluetan xedatutakoa beteko da; eta eskaintako zerbitzuak onartzeko behar dituen baldintzak betetzen ez baditu, HAKLEOren 204. artikuluan eta orri honen 33.3 klausulan eta ondorengoetan xedatutakoa beteko da.

### 30. ENPRESA KONTRATISTARI ORDAINTZEA

Enpresa kontratistak benetan gauzatzen dituen lanen zenbatekoa jasotzeko eskubidea du, adostutako prezioen arabera eta emandako kontratuari, bertan onartu diren aldaketei eta enpresa kontratugileak idatziz emandako aginduei lotuta. Kontratuaren prezioa hileroro ordainduko da.

Lanen balorazioa eta ordainketa HAKLEOren 199. eta 200. artikuluetan xedatutakoaren arabera egingo da, betiere lana jasotzen edo gainbegiratzeko duen pertsonaren edo, hala badagokio, kontratazio-organoak kontratuaren arduradun izateko izendatutako pertsonaren aldeko edo adostasuneko txostena jaso eta gero.

Enpresa kontratugilea ordainketa egiteko HAKLEOren 216.4 artikuluan aurreikusitako epearekiko atzeratzen bada, enpresa kontratistari berandutza-interesak eta kobrantzaren kostuengatik kalte-ordaina ordainduko dizkio, 3/2004 Legean, abenduaren 29koa eta merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzeko denean, aurreikusitako terminoetan.

### 31 ZIGORRAK.

31.1 Kontratazio-organoak, SPKLTBren 212. artikuluan xedatutakoa betez, zigorrak ezarri ahal izango dizkio enpresa kontratistari, ondoren aipatutako ez-betetzeengatik eta adierazitako diren kopuruengatik:

- a) Betetzean atzeratzeagatik.
- b) Zerbitzugintzaren betetze akastunagatik, bitarteko pertsonalak eta materialak atxikitzeko konpromisoa, konfidentzialtasuna edo beste edozein gauzatze-baldintzaren betetze akastuna egiteagatik (SPKLTBren 212.1. art.).
- c) Eskaintzak baloratzeko irizpide gisa kontuan hartutako alderdiak eragiten dituen ez-betetzeagatik edo betetze akastunagatik. (SPKLTBren 150.6. art.)
- d) Laneko Segurtasun eta Osasun Plana aurkezteko epea ez betetzeagatik, plana aurkeztu behar denean.

31.2 Honako hau izango da zigorren zenbatekoa:

- a) A) letrako arrazoiak dela-eta, SPKLTBren 212. artikuluan 4. atalean aurreikusitako zenbatekoak.
- b) b) eta c) letretan adierazitako arrazoiak direla-eta, kontratuaren prezioaren ehuneko bat, kontratazio-organoak ez-betetzea larria edo oso larria dela uste duen kasuan izan ezik; kasu horretan, % 5 bitartean lehen kasuan, eta % 10 bitartean bigarrenean. Ez-betetzea errepikatzea kontuan hartuko da larritasuna baloratzeko.
- c) d) letran adierazitako arrazoiak dela-eta, eguneroko zigorra ezarriko da, kontratuaren prezioaren 5.000 euro bakoitzagatik. Lehen ordainketatik kenduko da.

31.3 Enpresa kontratista berandutza eroriz gero, enpresa kontratugileak ez du alde aurreko errekerimendurik egingo.

31.4 Zerbitzugintzaren betetze akastunagatik, bitarteko pertsonalak eta materialak atxikitzeko konpromisoa, konfidentzialtasuna edo beste edozein gauzatze-baldintza ez betetzeagatik edo betetze akastuna egiteagatik

31.5 Eskaintzak baloratzeko irizpide gisa kontuan hartutako alderdiak eragiten dituzten ez-betetze edo betetze akastunagatik zigorrak ezarriko dira, baldin eta kontratazio-organoak baieztatzen badu kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratistak bere eskaintza hartutako konpromisoren bat ez betetzeagatik edo betetze akastuna egiteagatik gauzatu dela kontratua, betiere esleipena egiteko orduan konpromiso horiek garrantzitsuak izan badira.

Bete ez diren konpromisoak garrantzitsutzat joko dira, baldin eta bete ez den irizpideari dagokionez kontratistak lortutako puntuaziotik ehuneko 50 murriztean bere eskaintza balorazio altuena lortu duena izango ez balitz.

31.6 Kontratistari ordainketa oso edo partzial gisa gaur egun edo etorkizunean egin beharreko ordainketei, edo bermeari, dagozkien kantitateak kenduko dira zigorrak gauzatzeko, SPKLTBren 212.8. artikuluan arabera.

31.7 Betetze akastunagatik zigorrak ezarriko dira, aipatutako akatsak zuzentzeko kontratistari legez dagokion betebeharra gorabehera.

31.8 Zigorra ezartzeak ez du salbuetsitako kalte eta galerengatik kalte-ordainak ordaintzetik (SPKLTBren 214. art.)

### 32 KONTRATUA ALDATZEA ETA ETETEA.

32.1 Kontratua alda daiteke, interes publikoko arrazoiak direla medio eta behar den bezala justifikatutako ezustekoei erantzuteko; edozein kasutan, aldaketa egiteko beharra justifikatuko da espedientearen. Edozein kasutan, ez dira kontratuaren funtsezko baldintzak eragingo.

32.2 Kontratuaren xedearen aldaketarik egin behar bada, kontratuaren arduradunak idatziko du proposamena, hori justifikatzen, deskribatzen eta baloratzen duten dokumentuek osatua. Organo kontratugileak aldaketa onartu aurretik, araudiak exijitzen dituen txostenak egin beharko dira, hala badagokio, enpresari esan beharrekoa entzungo zaio eta dagokion gastua ikuskatuko da.

32.3 Aldaketak egiten badira, kontratua gauzatzeko epea edo iraupena horren proportzio bereberetan aldatu beharko da, kasu berezietan izan ezik. Kasu bereziok behar bezala justifikatu beharko dira, eta enpresa kontratistak hala eskatuta, eta kontratuko arduradunak aldeko txostena ematen badu, epea gehiago luza daiteke.

32.4 Enpresa kontratistak eta kontratuaren arduradunak ezingo dute behar bezala onartu ez den aldaketarik egin edo gauzatu. Lanen zuzendaritzaz, ikuskapenez edo zaintzaz arduratzen diren pertsonen dagokien erantzukizunari kalterik egin gabe, organo

kontratugileak behar den bezala baimendu ez dituen kontratuaren xedearen aldaketek enpresa kontratistaren erantzukizuna ekarriko dute, eta hori behartuta egongo da hitzartutako baldintzak berregitera eta ez du ordainketa gehigarririk jasoko.

- 32.5 Kontratuaren aldaketak SPKLTBren 156. artikuluan xedatzen denaren arabera formalizatuko dira.
- 32.6 Kontratuaren aldaketaren baten ondorioz haren prezioa aldatzen bada, bermea berregokitu egin beharko da, aldatutako prezio berriarekin beharrezko proportzioa gorde dezan. Enpresariak hamabost egun balioduneko epea izango du bermea berregokitzeko, aldatzeko erabakia jakinarazten diotenetik hasita.
- 32.7 Enpresa kontratugileak aldaketak egitea erabakitzen duenean lanaren zati batzuk egiten jarraitzea ezinezkoa baldin bada, kontratua aldi baterako, zati batez edo guztiz eten beharko da, dagokionaren arabera.
- 32.8 Enpresa kontratugileak kontratua etetea erabakitzen badu edo SPKLTBko 216. artikuluan, kasu honetan berariaz ezarri beharrekoan, xedatutakoa aplikatuz kontratua eteten bada, Akta idatziko da eta kontratua eteteko arrazoiak eta kontratuaren egoera azalduko dira, HAKLEOren 103.1 artikuluan adierazitako ondorio eta baldintzekin. Bertan adieraziko da kontratua aldi baterako, zati batean edo osorik eten ote den eta eragindako kontratuaren zatia edo zatiak zehaztuko dira, halaber, baita kontratua eten den unean kontratatutako prestazioa zein egoeretan dagoen hobeto ezagutzen lagunduko duten alderdi guztiak ere. Aktarekin batera, etendako zatiaren edo zatien zerrenda bat aurkeztuko da.
- 32.9 Behin kontratua etetea erabaki eta gero, organo kontratugileak kontratistari jasan dituen kalte eta galerak ordainduko dizkio (SPKLTBren 220.2 art.)

### **33 KONTRATUA LAGATZEA, AZPIKONTRATAZIOA ETA ENPRESA HORNITZAILEEI ORDAINTZEA.**

Enpresa esleipendunak ezin dizkio kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak beste pertsona edo entitate bati eskualdatu, EUSKADIKO KIROL PORTUA, SA sozietateak alde zuzenetik baimenik ematen ez badu. Enpresa esleipendunak ezin ditu kontratu honen xede diren zerbitzuak azpikontratatu.

### **34 BETETZEA ETA HARRERA**

- 34.1 Kontratua guztiz beteko du enpresa kontratistak zerbitzugintza osorik egin duenean, betiere kontratuan adierazitako terminoetan eta enpresa kontratugilearen adostasunarekin.
- 34.2 Egoera hori baieztatuz, enpresa kontratugileak ados dagoela adierazteko egintza formal eta positibo bat egingo du, kontratuaren xedea gauzatu eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan.
- 34.3 Egindako lana kontratatutako zerbitzugintzarekin bat ez datorrela uste bada, enpresa kontratistari idatziz emango zaizkio ikusitako ez-egiteak edo akatsak zuzentzeko jarraibide zehatzak. Idatzi horretan zuzenketak egiteko epea zehaztuko da.
- 34.4 Egindako oharren inguruan enpresa kontratistak erreklamazioa egiten badu, kontratazio-organoak erabakiko du.
- 34.5 Enpresa kontratistak oharren aurkako erreklamazioa idatziz egiten ez badu, egindako oharren onartzen dituela eta antzemandako akatsak zuzentzera edo konpontzera behartuta dagoela ulertuko da.
- 34.6 Zuzentzeko emandako epea igarota zuzenketa behar bezala egin ez bada, enpresa kontratugileak ez du ordainketa egin beharko edo, hala badagokio, ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea edukiko du.
- 34.7 Edozein kasutan, enpresa kontratugileari egotz dakizkiokkeen arrazoiaren ondorioz, lanak kontratatutako prestazioarekin bat ez badatoz, kontratazio-organoak ez du ordainketa egin beharko edo, hala badagokio, ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea edukiko du.
- 34.8 Enpresa kontratistak eskubidea du kontratatutako zerbitzuaren betetzeari buruz egiten diren oharren ezagutzeko eta entzuteko.

### **35 BERME EPEA**

- 35.1 Kontratu honen berme-epea bi hilabetekoa da, obren harrera egiten denetik.
- 35.2 Berme-epean kontratistak gauzatutako zatian ikusitako akats guztiak zuzendu beharko ditu, bere kontura, kasuan-kasuan eragindako erantzukizunei dagokienez izan daitezkeen ondorioei kalterik egin gabe, orri honetan ezarritakoaren eta SPKLTBren 305. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- 35.3 Kontratistak akatsak ez baditu epearen barruan zuzentzen, kontratazio-organoak zuzendu ahal izango ditu, osatutako bermearen kontura.
- 35.4 Berme-epea amaituta enpresa kontratugileak eragozpenik edo salaketa formalizatu ez badu, egindako lanekin lotutako edozein erantzukizunetik salbuetsia geratuko da enpresa kontratista.

### **36 LIKIDAZIOA**

Harrera- edo adostasun-akta jasotzen denetik hogeita hamar eguneko epean, edo, hala badagokio, fakturaren erregistro-datatik, baldin eta harrera edo adostasuna jaso ondorengo bada, kontratuaren likidazioa adostu eta enpresa kontratistari jakinaraziko zaio eta dagokion saldoa ordainduko zaio, hala badagokio. Likidazio-saldoaren ordainketan atzerapenik egonez gero, enpresa kontratistari berandutza-interesak eta kobrantzaren kostuengatik kalte-ordaina ordainduko dio, HAKLEOren 3/2004 artikuluan, abenduaren 29koa eta merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzeko denean aurreikusitako terminoetan.

### **37 BERMEA ITZULTZEA**

- 37.1 Bermea ez da itzuliko edo ezeztatuko berme-epea amaitu bitartean eta kasuan-kasuan kontratua behar den bezala bete bitartean, edo kontratistak inolako errurik eduki gabe kontratuaren suntsiarazpena egin bitartean.
- 37.2 Kontratuaren likidazioa onartu ondoren, eta berme-epea igaro ondoren, bermearen gainean gauzatzeko erantzukizunik ez badago, osatutako bermea itzuliko da edo abal zein kausio-asegurua eten egingo da.
- 37.3 Itzultzeko akordioa berme-epea amaitu eta hamabi hilabeteko epean hartuko da eta interesdunari jakinaraziko zaio.



### **38 KONTRATUA IRAUNGITZEA ETA SUNTSIARAZTEA**

- 38.1 Kontratua iraungituta geratuko da, bete delako edo suntsiarazi delako.
- 38.2 Zerbitzu-kontratuak iraungitzean, ez dira finkatuko enpresa kontratugilearen langile gisa kontratuaren xede diren lanak egin dituzten pertsonak.
- 38.3 SPKLTBren 308. artikulua araber, kontratua suntsiarazteko arrazoiak dira SPKLTBren 223. artikuluan eta ondorengoetan aurreikusitakoak:
  - a) Enpresa kontratugileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratuaren hasiera sei hilabetetik gora atzeratzea, kontratuaren aurreikusitako hasiera-datatik aurrera.
  - b) Kontratuari uko egitea edo kontratua etetea urtebetetik gorako epe baterako, enpresa kontratugileak erabakitzen badu.

## **VIII. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK, JURISDIKZIOA ETA ERREKURTZOAK.**

### **39 ENPRESA KONTRATUGILEAREN ESKUMENAK**

Kontratazio-organoak administrazio-kontratuak interpretatzeko eta hori betetzean sor daitezkeen zalantzak argitzeko eskumena du. Era berean, egindako kontratuak aldatu eta horien suntsiarazpena erabaki dezake, SPKLTBn eta berau garatzen duten xedapenetan adierazitako mugen barruan eta baldintzekin eta eraginekin.

Kontratazio-organoak kontratua interpretatu, aldatu eta suntsiarazteko dagozkion eskumenak gauzatuz hartzen dituen akordioak berehala gauzatuko dira, eskumeneko organoek txosten juridikoa eman eta gero.

### **40 JURISDIKZIO ESKUDUNA**

Jurisdikzio zibilaren arabera ebatziko dira kontratua interpretatu, aldatu edo suntsiarazteko sortzen diren gai eztabaidagarri guztiak.



## ORRIAREN I. ERANSKINA

## ENPRESA ATZERRITARRAK

## A GUTUN AZALAREN, «GAITASUNA ETA KAUDIMENA », BARRUAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- 1.- Europar Batasuneko estatu kideetako enpresa atzerritarrak (EBko enpresak).
- 1.1.- Kasu honetan, enpresak bakarrik aurkeztu ala aldi baterako enpresa-elkarte gisa aurkeztu, A gutun-azalean, «Gaitasuna eta kaudimena», orri honen 13. Klausulan aipatutako dokumentuak aurkeztuko dira, honako berezitasun hauek kontuan hartuta:
- 1.1.1.- EBko enpresak Europar Batasuneko kide den Estatu batek kontratatzeko ezarritako enpresari baimenduen zerrenda ofizialetan izena emanda dagoela ziurtatzen duen Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiri bat, edo antzeko agiriren bat, badu, ziurtagiri hori aurkezteak enpresak gaitasuna duelako presuntzioa adieraziko du kontratazio-organoen aurrean, SPKLTBren 60. artikulua 1. ataleko a) letratik c)-ra eta e) letran adierazten den kontratatzeko debekurik ez duela esan nahi baitu eta 54. artikulua eskatzen dituen jarduteko gaitasuna eta gaitasun profesionala dituela eta SPKLTBren 75. artikuluko b) eta c) letratan, 76. artikuluko a), b), e), g) eta h) letratan, 77. artikuluan eta 78. artikuluko a) eta c)-tik i) letrara artekoetan aipatzen den kaudimena duela adierazten baitu. Presuntzio-balio bera edukiko dute enpresa kokatzen den EBko kide den Estatuaren legeriaren arabera organismoek luzatu dituzten arau europarrak betetzen dituzten ziurtapenek.
- Aurreko atalean aipatutako agirietan enpresaria zerrendan inskribatzea edo ziurtagiria luzatzea ahalbidetu duten erreferentziak adieraziko dira, baita lortutako sailkapena ere.
- 1.1.2.- Orriko 13.2.2 eta 13.2.4 klausulei dagokienez, enpresa kokatuta dagoen herrialdeko nortasunaren identifikazio-agiria edo EBko pasaporteak aurkeztuko da, eta bere izenean jarduten ez badu, edo pertsona juridikoa bada, ordezkari izateko ahalordea, gaztelaniara edo euskarara itzulia, aurkeztuko da.
- 1.1.3.- Orriko 13.2.3. eta 13.2.6. klausulei dagokienez, jarduteko gaitasunari buruzkoak –SPKLTBren 58. eta 72.2 artikulua eta HAKLEOren 9. artikulua- enpresak kontratatzeko gaitasuna edukiko du, betiere enpresa kokatzen den Estatuaren legeriaren arabera kasuan-kasuan zerbitzugintza gauzatzeko gaitasuna badu.
- Jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, aurreko 1.1.1 puntuan aipatutako EBko ziurtagiria edo antzekoa aurkezten den kasuan izan ezik, enpresak A gutun-azalean sartuko du HAKLEOren I. eranskinean adierazitako dagokion erregistroko inskripzioaren ziurtagiria, edo, hala badagokio, aipatutako eranskinean arabera dagokion ziurtagiria.
- Aipatutako legeriaren arabera, enpresek zerbitzua eskaintzeko baimen berezi bat edo erakunde jakin batekoa izatea eskatzen badu, baldintza hori betetzen dela ziurtatuko da.
- Baimen hori aurkeztea edo erakunde jakin batekoa izatea eskatzen ez bada, hori horrela dela ziurtatzen duen ardurapeko aitortpena aurkeztuko du.
- 1.1.4.- 13.2.8. klausulari dagokionez, Karatulako 29.1. puntuan sailkapena eskatzen bada, enpresek, baldin eta sailkatuta ez badaude, Karatulako 29.1. puntuan eskatzen diren kaudimen-baldintzak betetzen dituztela ziurtatu beharko dute; eta enpresak EBko ziurtagiria edo antzeko agiria aurkezten badu eta aipatutako baldintza aurreko 1.1.1. puntuko presuntzioarekin betetzen dela ziurtatzen badu izan ezik, enpresak aipatutako baldintzak betetzen dituela ziurtatuko du, 1.1.1. puntuan ezarritako bitartekoak erabiliz.
- 1.2.- Modu osagarrian, honako hauek aurkeztuko dira:
- 1.2.1.- Kontratua Espainian gauzatu bada, Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegiren eskumenaren mende dagoela erakusten duen adierazpena, kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitekeen gorabehera orotarako, eta lizitatzailari egokitu dakiokeen atzerriko eskumen-foruari uko eginda, hala badagokio.
- 2.- Europar Batasuneko kide ez diren Estatuetak enpresa atzerritarrak (SPKLTBren 55.1 artikulua eta HAKLEOren 10. artikulua).
- 2.1.- Kasu honetan, enpresak bakarrik aurkeztu ala aldi baterako enpresa-elkarte gisa aurkeztu, A gutun-azalean, «Gaitasuna eta kaudimena», orri honen 13. Klausulan aipatutako dokumentuak aurkeztuko dituzte, honako berezitasun hauek kontuan hartuta:
- 2.1.1.- Orriko 13.2.2 eta 13.2.4 klausulei dagokienez, nortasunaren identifikazio-agiria edo EBko pasaporteak aurkeztuko da, eta bere izenean jarduten ez badu, edo pertsona juridikoa bada, ordezkari izateko ahalordea, gaztelaniara edo euskarara itzulia, aurkeztuko da.
- 2.1.2.- Jarduteko ahalmenari dagokionez, orriko 13.2.3 eta 13.2.6. klausulak, enpresak helbidea duen tokiko Espainiako Kontsul Bulegoak edo Misisio Diplomatiko iraunkorrak egindako txostenaren bitartez ziurtatuko du. Bertan, tokiko, lanbideko, merkataritzako edo antzeko erregistroan inskribatuta egotea edota, halakorik ezean, kontratuaren xedea zabaltzen deneko jarduera-eremuko tokiko trafikoa ohikotasunez jardutea jasoko da.
- 2.2.- Modu osagarrian, honako hauek aurkeztuko dira:
- 2.2.1.- Dagokion Espainiako Misisio Diplomatiko iraunkorrak egindako elkarrekikotasunari buruzko txostena. Bertan justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hanga administrazioarekiko eta SPKLTBren 3. artikuluan adierazitakoen pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea. Erregulazio bateratuaren mendeko kontratuaren bazterrean utziko da Merkataritzarako Mundu Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa izenpetu zuten Estatuetak enpresekiko elkarrekikotasunari buruzko txostena, betiere Espainiako Kontsul Bulegoaren edo Misisio Diplomatiko iraunkorraren txostenean aipatutako akordioa sinatu duela ziurtatzen bada.
- 2.2.2.- Kontratua Espainian gauzatu bada, Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegiren eskumenaren mende dagoela erakusten duen adierazpena, kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitekeen gorabehera orotarako, eta lizitatzailari egokitu dakiokeen atzerriko eskumen-foruari uko eginda, hala badagokio.

## AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA, ESLEIPENEAN PARTE HARTZEKO AUKERATUA IZANEZZ GERO ETA ESLEIPENA BERE ALDE EGINEZ GERO:

Enpresa atzerritar bat esleipenean parte hartzeko aukeratzten bada eta esleipena bere alde egiten bada, 25. eta 27. artikuluetan, hurrenez hurren, adierazitako dokumentuak aurkeztuko dira, ondoren adierazitako berezitasunak kontuan hartuta:

Zerga-helbidea Espainian ez duten enpresa atzerritarrek kokatzen diren herrialdeko eskumeneko agintaritzak luzatutako ziurtapena, zerga-betebeharrak egunean dituztela eta dagokion herrialdeko gizarte-betebeharrak egunean dituztela ziurtatuko duena. Ziurtapena azken hamabi hilabeteei buruzkoa izango da eta gaztelaniara edo euskara itzulita egongo da.

ORRIAREN II. ERANSKINA

**ESKAINZA EKONOMIKOA**

.....jaunak/andreak, ..... kalean helbidea duenak eta .....NAN duenak,  
.....-ren izenean (bere izenean edo berak ordezkatzeko duen pertsona, erakunde zein enpresaren izenean), jakinarazpenak  
jasotzeko ..... kalean helbidea duenak eta ..... telefonoa eta ..... IFK duenak, honako hau

AITORTZEN DUT:

- I.- ..... xedea duen kontratuaren esleipen-prozeduraren jakinararen gainean nagoela .....
- II.- Era berean, baldintza teknikoaren orria, klausula administratibo partikularren orria eta kontratu hau arautu behar duen gainerako dokumentazioa ere ezagutzen ditudala, eta espresuki nire gain hartzen eta ontzat ematen ditudala denak, salbuespenik gabe.
- III.- Ordezkatzen dudako enpresak betetzen dituela indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza eta betebeharrak guztiak irekitzeko, instalatzeko eta funtzionatzeko, eta eskaintza lantzean kontuan hartu ditudala enpleguaren babesari, lan-baldintzei eta laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumenaren babesari buruz indarrean dauden betebeharrak guztiak.
- IV.- Eskaintza hau eskaintzeko orduan, proposamen hau egiten dudala:
  - a) Prezioa (*adierazi hizkiekin*)  
 ..... euro, BEZ KANPO.  
 Kantitate horri BEZ hau dagokio (*adierazi hizkiekin*) ..... euro,  
 hortaz, guztizko zenbatekoa, BEZ barne, hau da (*adierazi hizkiekin*): ..... EURO.  
 Zenbateko horren barruan sartuta daude aplikatu beharreko edozein motatako zergak, tasak eta kanonak. Halaber, sartuta daude zerbitzua eskaintzearen ondoriozko beste edozein gastu, edo orri honetan jasotako betebeharrak bete izanaren ondorioz esleipendunak edukiko dituen gastuak.

.....-n, ..... (e)ko .....-ren .....(e)an

Sinadura  
NAN

III. ERANSKINA

**BITARTEKOAK ATXIKITZEKO ETA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK BETETZEKO KONPROMISOA.** Enpresak konpromisoa hartzen du bere ekoizpen-antolakuntza kontratatutako jardueraren garapenean erabiltzeko, eta, horrez gain: kaudimen teknikoaren ziurtapena osatzeko, enpresak, kontratua gauzatzeko bitarteko material eta pertsonalen artean, jarraian adieraziko diren bitartekoak atxikitze konpromisoa hartuko du (kontratazio-organoak finkatzen ditu, bitarteko pertsonal eta materialei dagokienez gutxieneko ezaugarri eta kualifikazio batzuk behar direla uste baitu):

I.- Bitarteko materialak: .....

II.- Bitarteko pertsonalak: .....

**BITARTEKOAK ATXIKITZEKO ETA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK BETETZEKO KONPROMISOAREN AITORPENA**

jaunak/andreak, ..... kalean helbidea duenak eta ..... NAN duenak, .....-ren izenean (bere izenean edo berak ordezkaten duen pertsona, erakunde zein enpresaren izenean), jakinarazpenak jasotzeko ..... kalean helbidea duenak eta ..... telefonoa eta ..... IFK duenak, honako hau

**AITORTZEN DU:**

..... Espediente-zenbakiari dagokion kontratua gauzatzeko orduan Karatulan eta orrian adierazitako gauzatze-baldintza bereziak betetzeko konpromisoa hartzen duela, baita kontratura honako hauek atxikitzekoa ere: a) bere ekoizpen-antolakuntza, b) orrian gauzatzeko baldintza berezi gisa zehaztutako bitartekoak, c) A gutun-azalean, «Gaitasuna eta kaudimena», ziurtatutako bitartekoak eta, Eranskin honetan adierazitako bitarteko pertsonalak eta materialak, finkatuta badaude.

Eta hala jasota gera dadin, aitorten hau sinatzen dut, .....-n, ..... (e)ko .....-ren .....(e)an

Sinadura  
NAN

ORRIAREN IV. ERANSKINA  
(Derrigorrez aurkeztu behar dira eredu honen 1. ataletik 4.era bitarteko atalak)

**AHALMENARI BURUZKO ARDURAPEKO AITORPENA**

.....jaunak/andreak, kalean helbidea duenak eta .....NAN duenak, .....  
AITORTZEN DU:

- 1.- Kontratu hau dela-eta, jarduteko ahalmen osoa duela eta jarduera betetzeko behar diren baimen guztiak dituela.
- 2.- Ez bera, ezta ordezkatzen duen enpresa, ezta horren administratzaileak edo legezko ordezkeriak ere, ez daudela Herri Administrazioekin kontratuak egiteko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen (3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa) 60. artikuluan adierazitako kontratatze debekuren batean sartuta.
- 3.- Era berean adierazten du indarrean dauden xedapenetan ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela enpresak. Eta esleipendun gertatuz gero, errekerimendua jasotzen duen biharamunetik hasita gehienez hamar (10) laneguneko epean, eskaera hori jatorrizko dokumentazioarekin egiaztatze konpromisoa hartzen du.
- 4.- Esleipendun ez izatea edo, berez edo aldi baterako enpresaburuen elkarte bidez, kontratua prestatzeko zehaztapen teknikoak edo dokumentuak lantzen parte hartu ez izana.
- 5.- Ziurtagirian adierazitakoak aldaketarik jasan ez duela:
- 6.- Ondorengo ataletan, BAI/EZ adierazi, dagokiona.
  - 6.1.- Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofiziala
    - a) Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialean indarrean dagoen ziurtagiriarekin inskribatuta dagoela, eta:
      - Dagokion ziurtagiria aurkezten duela (bai/ez, dagokiona adierazi)\*\*: .....
    - b) Ziurtagiria emateko oinarri izan ziren baldintzek indarrean dirautela adierazten duela (bai/ez, dagokiona adierazi): .....
  - 6.2.- Enpresa-taldea (Merkataritza Kodeko 42.1. artikulua).  
Enpresa enpresa-talde bateko kide dela (bai/ez): .....  
Erantzuna baiezkoa bada, adierazi jarraian, edo dokumentu honen eranskinean, taldearekin duen lotura eta talde bereko kide diren enpresak, baita lizitazioan parte hartzeko interesa duenak ere.

Eta hala jasota gera dadin, aitortpen hau sinatzen dut, .....-n, ..... (e)ko .....-ren .....(e)an

Sinadura.  
NAN

(\*\*) Klausula Administratibo Partikularren Orri honen 11.1.1. klausulan barne hartutakoak ondorioak izan ditzan, ziurtagiria aurkeztu behar da.

ORRIAREN V. ERANSKINA

(aukeran aurkezteko, eskaintzen balorazio-irizpideetan hobekuntzak barne hartzen badira)

**KONTRATUAN XEDATUTAKO BETEBEHARREKIKO ETA BESTE BALORAZIO IRIZPIDE BATZUETAN BARNE HARTUTA EZ DAUDENEKIKO HOBEKUNTZEN PROPOSAMENA, ESKAINITAKO PREZIOA AREAGOTU GABE**

.....jaunak/andreak, kalean helbidea duenak eta .....NAN duenak, .....

Hobekuntzaren deskribapena:	

HOBEKUNTZA zk.:	
Hobekuntzaren deskribapena:	

HOBEKUNTZA zk.:	

.....-n, ..... (e)ko .....-ren .....(e)an

Sinadura  
NAN

\* Hiru baino gehiago badira, enpresak dagozkion eremuak gehitu ditzake.

ORRIAREN VI. ERANSKINA  
(aukeran aurkezteko)

**ESTATUAREKIKO ETA EUSKADIKO FORU ALDUNDIEKIKO ZERGA BETEBEHARREI BURUZKO INFORMAZIOA  
LAGATZEKO BAIMENA (\*).**

.....jaunak/andreak, kalean helbidea duenak eta .....NAN duenak, .....

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari baimena eman dio bitarteko informatikoak edo telematikoak erabiliz lehen aipatutako espedientearen kontratazio-prozeduraren ondorioetarako zerga-betebeharrak egunean ote dituen jakiteko informazioa eskatzeko, 15/1999 Lege Organikoan, abenduaren 13koa eta datu pertsonalen babesari buruzkoa denean, 40/1998 Legean, abenduaren 9koa eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari eta beste zerga-arau batzuei buruzkoa denean, eta aplikatu daitezkeen gainerako xedapenetan ezarritakoaren arabera.

Eta hala jasota gera dadin, aitopen hau sinatzen dut, .....-n, ..... (e)ko .....-ren .....(e)an

Sinadura  
NAN

(\*). *Baimen honek, berez, ez du salbuesten aipatutako betebeharrak betetzen direla ziurtatzen duen dokumentazioa aurkezteko betebeharretik.*



**ENPRESAK EMANDAKO INFORMAZIOA KONFIDENTZIALTZAT JOTZEKO EREDUA**

.....jaunak/andreak, kalean helbidea duenak eta .....NAN duenak, .....

AITORTZEN DUT:

..... gutun-azalean (adierazi dagokion gutun-azala) sartutako dokumentazioari dagokionez, konfidentzialtzat jo dira ondoren aipatuko diren eskaintzaren informazioak eta alderdiak, sekretu teknikoekin edo komertzialekin zerikusia dutelako: Izaera konfidentzial hori arrazoi hauengatik justifikatzen dela:

.....-n, ..... (e)ko .....-ren .....(e)an

Sinadura  
NAN